

Beharrak eraginda ala bulkadaz erosten duzu?

Aukera galtzeko beldurrari ordaintzeko erraztasunak gehitzen badizkiogu, bulkadazko erosketa gerta liteke.

Zer da FOMOa?

Fear Of Missing Out

(kanpo geratzearen edo zerbait galtzearen beldurra)

24 orduko deskontuak, produktu-kopuru mugatuak...

Horrelako eskaintzek elikatu egiten dute FOMO beldur hori.

Zer da BNPLa?

Buy Now, Pay Later

(erosi orain, ordaindu gero)

Ordaintzeko erraztasunak. Unean bertan erosi, baina aurrerago ordaintzen duzu, kuotetan.



**Zerbait
galtzearen
beldurra**



**Ordaintzeko
erraztasunak**



**BULKADAZKO
EROSKETA**

TEST LABURRA Bulkadaz erosten duzu?

1

Erosi duzu zerbait «eskaintza mugatua» zelako bakarrik?

2

Erabili duzu BNPLa, egun horretan aurreikusita ez zenuen zerbait erosteko?

3

Gertatu zaizu inoiz erosketa egin ondoren zalantzan jartzea benetan behar ote zenuen?



**Galdera guztiei baietz erantzun badiezu...
ez zigortu zeure burua!**

Desirak beti izango ditugu; nahikoa da tartetxo bat hartzea, apeta hutsa eta benetako beharra bereizteko. Eta ordainketak zatitzeari dagokionez, arduraz erabiltzen denean, finantza-tresna erabilgarri eta praktikoa izan daiteke; batez ere hauetarako:

- aparteko gastuak antolatzeko
- hileko aurrekontua orekatzeko

BNPL-A BURUA ERABILITA

Erosketa bat aurreikusi baduzu eta ordaindu ahal izango duzula jakin badakizu, **hori egiteko modu erraz eta garden bat dago:**

LABORAL Kutxa FINANTZATUTAKO ORDAINKETAK

- **Kreditu-txartelarekin egindako erosketak, ordainagiriak, transferentziak, zergak... ordaintzeko**
- **170 € eta 2.000 € bitarteko eragiketetarako**
- **3, 6, 9 edo 12 hilabeteen ordaintzeko aukera, zenbatekoaren arabera**
- **Kuota ordaintzeko eguna erabakitzeko aukera***



GOGORATU

- Ez erabili BNPLa FOMOak bultzatuta. Erabili ondo pentsatuta, ezusteko edo aparteko gastuei aurre egiteko ematen dizun lasaitasunetik.
- Sartu kuotak zure aurrekontuaren barruan.
- Irakurri ondo terminoak eta baldintzak.
- Apuntatu ordaintzeko egunak.



Epea	Erosketaren gutxieneko zenbatekoa	Erosketaren gehieneko zenbatekoa	Gestio-komisioa	Gutxieneko UTBa**	Gehieneko UTBa**
3 hilabete	170 €	2.000 €	5 €	% 1,51	% 19,67
6 hilabete	388,7 €	2.000 €	20 €	% 3,51	% 19,99
9 hilabete	414,3 €	2.000 €	30 €	% 3,70	% 19,99
12 hilabete	431,2 €	2.000 €	40 €	% 3,81	% 19,99

* Bezeroak finantzaketa-eskaera egiten duenean eta finantzatutako zenbatekoa ordaintzen duenean kargatuko da gestio-komisioa. Lehen kuota hautatutako egunean ordainduko da, finantzaketa eskatu ondorengo hilean. **UTBa aldatu egingo da epearen eta zenbatekoaren arabera, gestio-komisioaren eragina dela eta.**

** Hona hemen gestio-komisio bakoitzari dagozkion gutxieneko eta gehieneko UTBetarako adibide batzuk:
Hilaren lehen egunean finantzatutako 170 €-ko erosketa; geroratzea: 3 hilabete; **ITNa: % 0 (UTBa: % 19,67);** amortizazio-sistema: **frantsesa; hileko kuota: 56,67 € —kuotetako batek aldaketaren bat izan lezake ehunenean, zorraren zenbatekoa osatzeko—; gestio-komisioa: 5 €; zorraren zenbatekoa guztira: 175 €; interesak: % 0,0; maileguaren kostu osoa: 5 €.**

Hilaren lehen egunean finantzatutako 2.000 €-ko erosketa; geroratzea: 3 hilabete; **ITNa: % 0 (UTBa: % 1,51);** amortizazio-sistema: **frantsesa; hileko kuota: 666,67 € —kuotetako batek aldaketaren bat izan lezake ehunenean, zorraren zenbatekoa osatzeko—; gestio-komisioa: 5 €; zorraren zenbatekoa guztira: 2.005 €; interesak: % 0,0; maileguaren kostu osoa: 5 €.**

Hilaren lehen egunean finantzatutako 388,70 €-ko erosketa; geroratzea: 6 hilabete; **ITNa: % 0 (UTBa: % 19,99);** amortizazio-sistema: **frantsesa; hileko kuota: 64,78 € —kuotetako batek aldaketaren bat izan lezake ehunenean, zorraren zenbatekoa osatzeko—; gestio-komisioa: 20 €; zorraren zenbatekoa guztira: 408,68 €; interesak: % 0,0; maileguaren kostu osoa: 20 €.**

Hilaren lehen egunean finantzatutako 2.000 €-ko erosketa; geroratzea: 6 hilabete; **ITNa: % 0 (UTBa: % 3,51);** amortizazio-sistema: **frantsesa; hileko kuota: 333,33 € —kuotetako batek aldaketaren bat izan lezake ehunenean, zorraren zenbatekoa osatzeko—; gestio-komisioa: 20 €; zorraren zenbatekoa guztira: 2.020 €; interesak: % 0,0; maileguaren kostu osoa: 20 €.**

Hilaren lehen egunean finantzatutako 414,3 €-ko erosketa; geroratzea: 9 hilabete; **ITNa: % 0 (UTBa: % 19,99);** amortizazio-sistema: **frantsesa; hileko kuota: 46,03 € —kuotetako batek aldaketaren bat izan lezake ehunenean, zorraren zenbatekoa osatzeko—; gestio-komisioa: 30 €; zorraren zenbatekoa guztira: 444,3 €. interesak: % 0,0; maileguaren kostu osoa: 30 €.**

Hilaren lehen egunean finantzatutako 2.000 €-ko erosketa; geroratzea: 9 hilabete; **ITNa: % 0 (UTBa: % 3,70);** amortizazio-sistema: **frantsesa; hileko kuota: 222,22 € —kuotetako batek aldaketaren bat izan lezake ehunenean, zorraren zenbatekoa osatzeko—; gestio-komisioa: 30 €; zorraren zenbatekoa guztira: 2.030 €; interesak: % 0,0; maileguaren kostu osoa: 30 €.**

Hilaren lehen egunean finantzatutako 431,2 €-ko erosketa; geroratzea: 12 hilabete; **ITNa: % 0 (UTBa: % 19,99);** amortizazio-sistema: **frantsesa; hileko kuota: 35,93 € —kuotetako batek aldaketaren bat izan lezake ehunenean, zorraren zenbatekoa osatzeko—; gestio-komisioa: 40 €; zorraren zenbatekoa guztira: 471,20 €; interesak: % 0,0; maileguaren kostu osoa: 40 €.**

Hilaren lehen egunean finantzatutako 2.000 €-ko erosketa; geroratzea: 12 hilabete; **ITNa: % 0 (UTBa: % 3,81);** amortizazio-sistema: **frantsesa; hileko kuota: 166,67 € —kuotetako batek aldaketaren bat izan lezake ehunenean, zorraren zenbatekoa osatzeko—; gestio-komisioa: 40 €; zorraren zenbatekoa guztira: 2.040 €; interesak: % 0,0; maileguaren kostu osoa: 40 €.**